

mendia › IBILBIDEAK



Jendea bizikletan, Plazaolako natur bidean. BERRIA

Leitzaranen gora eta behera

Plazaolako trenaren ibilbidea izandakotik bizikletaz lot daitezke Andoain eta Leizta

XABIER ARANGUREN

Oria ibarreko ibai adar nagusia dugu Leitzaran, eta ezaugarri oso bitxiak ditu: bakartia, luzea, ia giza edo biztanlerik gabea, basatia, eta baita polemikoa ere. Ur emaria ere handia du. Nafarroako Leizta inguruan jaiotzen da erreka, eta Gipuzkoan sartzen da, Erreka auzoa igaro ondoren. Gipuzkoako zatian ez du auzo edo herririk 20 kilometroan zehar.

Basoak dira nagusi Nafarroa eta Gipuzkoa artean, eta Leitzaran dugu adibide garbiena. Pagadi eta marieztiak tartekatzen dira pinu sailen tartean; monolaborantza intentsiboa nagusitzen da, beraz, jarduera ekonomiko gisa. Ibaieretako haltzadia biotopo izendatu zuten, baina ibaiaren ur kalitatea kezkarria da, Leitzako industrien gorakadagatik.

Historiak iragan mendera garamatza. Antzinatek burdinolak eraiki ziren ibaiertzean, eta ikazkinak hornitzen zituen hauek. Abeltzaintzan jarduten zuten mendilerro gaineko larrean, eta ibarrean dauden baserri apurretan kokatzen ziren. Espainiako gerraren garaian ezkuteleku gisa erabil-



Leitzaran ibaia, Bertxin parean. IÑAKI GURRUTXAGA



tzen zen, muga pasabide zabala zen eta makina bat historia dago hainbat jenderen oroimenean nahiz liburutetan. Gerra ostean, estaperloa, kontrabandoa izaten zen, eta Plazaolako trenarekin, bizitza eta jende mugimendu handia ibili zen inguruotan. Plazaolako parajeen kokatzen ziren burdinola eta meategietatik hartu zuen izea tren famatuak. Ez dugu ahaztu behar trenaren garraio zerbitzu nagusia meategietatik ateratako menastak zirela. Bidaia zerbitzua Iruñea eta Donostia artean egiten zuten trenak. Bidaia bitxia izan daiteke Donostiatic Iruñerakoa, une batez imajinarioa pizten badugu.

Komunikabide kontuekin segituz, duela bi hamarkada inguru izan zen Leitzarango autobieren gatazkaz oroitu gara. Hasieran, komunikabide mota hauen eztabaida egon zen; «autobiak bai edo ez», hain zuzen. Autobien aurkako taldeak eztabaidan jarri zuen egitura handien eraikuntza, eredu desarrollista, eta, beraz, sistemak gizaki ororentzat zekarren arazoa. Autobia eraiki beharra ikusten zutenen artean ere sortu zen iskanbila: hiru aukera zeuden trazatua egiteko. Andoain eta Lekunberri

Ibilbidean, iragan mendeko aztarnak aurkitu, ikertu eta lantzeko gauza anitz aurkituko ditu ibiltariak

artearen bat, ibarrean zehar beste bat, Araxes eta Araritz bailaretatik, eta hirugarrena egungoa. Informazio gehiago nahi duenak jo dezala hemerrotekara.

ANDOAIN ABIAPUNTU. Gaurko ibilaldiak ez du zailtasun handirik, baina komeni da kontu batzuk jakitea. Egokiena bizikletarekin osatzea dugu, oinez eginda asko luzatzen baita joan-etorria. Bizikletarekin, gainera, itzultzeko hainbat aukera izango ditugu, dela abiapuntura edo dela beste edozein lekutara. Andoaingo Goiko Plazan galde diezaiokegu edonori bidegorria non hasten den. Plataforma edo bide gainean gaudenean, herria atzean utziko dugu, eta bailaran gora barneratuko gara, azken baserri eta landa gunek atzean utzi, eta baso eta zuhaitz artean. Eskuinean ibaia-aren hotsa entzuten da, eta elektrizitate etxeak lanean ari dira argindarra etengabe sortzen. Ubide sare handi batek hornitzen ditu zentral txiki hauek. Ubideak bailaren mazelatik doaz zigi-zaga, eta gero hodi batetik jaisten dira, turbinaraino, uraren indarrarekin. Leitzaranen zazpi zentral txiki daude martxan.

Sei kilometro osatuta, Bertxin-go amildegira iritsiko gara, behean erreka indarrez doala. Aurrerago, tunel batzuk pasa eta landa gune batera iritsiko gara: Olloki. Bertan zegoen tren geltokia. Gune estrategikoa zen Olloki, ikazkin eta abeltzainen topagunea. Berastegi eta Elduaingo lurretatik Goizueta eta Aranora joateko norabidean ongi kokatuta dago.

Zubi eta tunel batzuk pasa, eta Beines baserriko lurretan gaude. Aurrerago hezetasun handiko tunel eta ur putzu sakonak ditugu bidegorrian. Aurrerago, Ameraungo burdinola elektrizitate etxe eta baserri gunera iritsiko gara. Beste geltoki txiki bat zegoen han. Berastegira doan bideazidor bat abiatzen da bertatik, Ipulñe eta Larre mendien artean pasatzen dena. Jarraian, Bizkotx meategi gunera iritsiko gara. Ezkerretara jo, eta bertan labeak eta informazio kartelak daude. Bizkotx atzean utzita, Plazaolako zentrala, burdinola eta meategi gunean gaude. Ez dakigu meategiak non dauden, baina ibiltariak aurkitu, ikertu eta lantzeko gauza anitz aurkituko ditu bertan. Gipuzkoakoa zatia amaitu, eta Nafarroan Erreka auzotik sartuko gara. Baserri, bordak, zelaia... eta autobia buru gainean. «Leitzarandik ere pasatu ziren...».



Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraldiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

www.euskalmet.net

